

**OÑATIKO EMAKUMION KONTSEILUAREN ERAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA  
ARAUTZEKO ORDENANTZAREN ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA**

**- PARTE HARTZEARI BURUZKO TXOSTENA -**

Urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen Legearen 133. artikulua behartzen du araudi proiektu bat prestatu aurretik kontsulta publikoa egitera.

Kontsulta publikoaren helburua da herritarrek eta kontu hauetan zeresana izan dezaketen erakundeek ondorengo puntu hauei buruz zein zer iritzi duten jakitea:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Aurrekoa kontuan hartuta, Oñatiko Udaleko Berdintasun Departamenduak Oñatiko Emakumion Kontseiluaren Eraketa eta Funtzionamendua Arautzeko Ordenantza onartzeari buruzko arau-ekimenari dagokion alde aurreko kontsulta publikoa bideratu zuen.

2022ko uztailaren 29ko 394 zenbakidun Alkate Dekretuz onartu zen aipatu ordenantza kontsulta publikora ateratzea, udaleko barne prozedurari jarriki 20 egun balioduneko epean eta Oñatiko udaleko web atariaren bitartez.

Ekarpenak egiteko epea: 2022/09/22a arte

Epa amaitu da ekarpenik jaso gabe.



Oñatin, 2022ko irailaren 26an

**PARTAIDETZA ETA GARAPEN KOMUNITARIOKO TEKNIKARIA**